

### EUSKARAZ ONGI IDAZTEA ZER DEN

#### 1. LITERATURA: MAMIA ETA FORMA

Literatura lanetan materia eta forma bereizten dira: gaia eta itxura, hots gorputza eta jantzia.

Literatura lanak, ona izan dadin, bi alderdiok elkartu behar ditu. Alde batetik gai sakona, gogoetatsua eta bestetik gaiaren jantzi bikaina, hots, hizkuntza egokia, zalua, ongi josia eta guztirakoa erabiltzea.

Hauxe duzu goi idazleen eta literatura kritikarien ustea ere. Honatx laburki horien esan batzuk:

“Great literature is simply language charged with meaning to the utmost possible degree. (Ezra Pound: *How to Read*)

Goiko literatura hauxe duzu: hizkuntza bikaina gogoeta sakon-sakonei lotua.

Andre Brink, Hego Afrikako idazle ezagunak honelaxe zioen: “the novel from Joyce onward makes its medium - language - its subject” (V Bibliografia).

Eleberriaren helburua, Joycetik aurrera hizkuntza bera da.

Eta munduko hizkuntzalari askori entzungo diozu: “In the final analysis, reality is accessible only through words”

Azken kontuan, errealitatera hitzen bidez bakarrik hurbil gaitzke.

“A blow with a word strikes deeper than a blow with a sword” (Robert Burton, *The Anatomy of Melancholy* I.2.4.4)

Hitzaren kolpea ezpataren kolpea baino barneago sartzen da.

“A good catchword can obscure analysis for fifty years” (Wendell L. Wilkie)

Esaldi argi bat berrogeita hamar urteko analisiak baino distiratsuago izan liteke

“Words are, of course, the most powerful drug used by mankind” (Rudyard Kipling: Speech Feb. 14, 1923)

Hitzak, jakina, gizadiak erabili duen drogarik indartsuena dira.

“Language is the dress of thought” (Samuel Johnson)

Hizkuntza pentsamenduaren jantzia duzu.

“Our thoughts are unclear until put into words” (G.B. Shaw, *Maxims for Revolutionists*).

Gure pentsamenduak ilunak dira, hitzez adierazi arte.

“Proper words in proper places make style” (Lubbock, Percy: *The Craft of Fiction*) Estiloa hitz egokiek toki egokietan egiten dute.

“My definition of literature would be just this: words that have become deeds”. (Robert Frost). Literaturaren definizioa hauxe izan liteke, nire ustez: eginak bihurtu diren hitzak.

R. W. Emersonek uste berdintsua zuen:

“In good writing, words become one with things”. (Ralph Waldo Emerson, *Journals* 1831). Idazle onak hitzak eta gauzak bat egiten ditu.

“As a writer, George Meredith mastered everything except language; as a novelist, he can do everything except tell a story”. (Oscar Wilde)

Idazle denaz bezainbatean George Meredith guztiaren jabe da, hizkuntzarena ezik; eta eleberrigile denaz bezainbatean, edozein gauza egiteko gauza da, istorio bat kontatzeko ezik.

“A writer and nothing else: a man alone in a room with the English language”. (John K. Hutchens).

Idazle izatea hauxe da eta ez besterik: gela batean bakarrik egotea ingeles hizkuntzarekin.

Literatura ez da filosofia, soziologia edo historia bakarrik. Literatura hitzez egindako artea da

## 2. IDAZLE HANDIEN MAISUTASUNA

Shakespearek, Cervantesek, Quevedok, Dickensek, Dostoevskyk, Flaubertek, Faulknerrek bi alderdiok bildu zituzten: gogoeta miresgarriak eta hizkuntzaren maisutasuna.

Esaten zutena mamitsua zen, sakona, gizakiaren eta gizartearen barrena zulatzen zuena, eta bide batez ongi esanda, airoski, distiratsuki, bikainki, hutsik gabe.

Anitzen ustez orain arte munduan izan den idazlerik onena Shakespeare izan da.

Ez dira gutxi toki hori Cervantesi ematen diotenak.

Idazle biotan horixe ikusten dugu: alde batetik harritzeko moduko gogoetak eta bestetik hizkuntzaren jabetasuna.

Hamlet, Otelo, Machbeth ingelesez irakurtzen duenak, Shakespearen maisutasuna ikusi du.

Shakespearek berak honelaxe zion:

“I understan a fury in your words, but not the words” (Shakespeare *Othello* IV). Zure hitzetan sukarra ikusten dut; hitzik ez, ordea.

Eta berak *Richard II*-ean:

“How long a time lies in one little word! (Shakespeare *Richard III*-iii). Bai denbora handia hitxo batean!

Eta Cervantesekin gauza bera gertatzen da. *El Quijoten*, Quijotek berak, Sancho Panzak eta beste pertsonaiek esaten ditzuten gauzak bai egiazkoak, barnekoak, sakonak direla, gizakiaren betea adierazten dutenak!

Eta beste aldetik Cervantesen gaztelania txunditzeko modukoa da. Bai gauzak ongi esan! Ba da haren hitzetan musika eta distira.

### 3. EUSKAL KRITIKA LITERARIOA ZAILA

Gaurko egunean euskal liburuei egiten zaien kritikan gaia aztertzen da, batik bat.

Edo teknika. Txuma Lasagabasterrek (1986) hauxe esaten zuen: "Hala ere, inoiz agertu inpresio bat zera da: nobelariak badakite nola esan, baina ez dute argi zer esan. Formen inflazio hori nabaritzen da batzutan. Istorio batean baliapideak pilatzea"

Nik, ordea, euskal idazlerik gehienek zer esan behar duten badakitela eta maiz oso bikain esaten dutela ikusten dut. Bestalde, teknika bikainen jabe dira. Asko unibertsitatean ikasi dute (filologia karrerak eginez batzuetan) eta burua ongi jantzita daukate.

Hauxe da egia, ordea: literatura lanak aztertzean, eskuarki ez dela idazleen euskara ikertzen.

Zergatik?

Hasteko, idazle baten euskara kritikatzeko euskaraz hark bezain ongi edo hobeto jakin behar delako.

Bestaldetik, kritikak mesedegarriak badira ere, mingarriak izan litezkeelako. "Egia, askoren erregarria", dio esaera zaharrak.

### 4. IDAZTEA BIOLINA JOTZEA BEZALA DA

Lehenago ere esan dut idaztea instrumentu bat jotzea bezala dela. Inportantea da zer jotzen den, baina areago nola jotzen den.

Biolinista izanik, Beethovenen Bederatzigarren Sinfonia jotzen ari bazara, ezin duzu erdipurdika jo, desafinaturik, entzuleen belarriak urratzeko moduan.

Ongi jo behar duzu, entzuleek, musikarako belarri ona badute, benetan goxo, zoragarri jotzen duzula suma dezaten. Alde izugarria dago pieza bat Sarasatek edo Yehudin Menuhinek jo edo ikasi berri batek jo.

Idaztea kantatzea bezala ere bada. Bai aldea, kantu bera Pavarottik kantatu edo kantari txepel batek. Hemen ere zer kantatzen den baino inportantzi handiago du ongi kantatzeak.

Era berean, alferrik esango dute literatura lan bat oso sakona, filosofia bikaina duela, mamitsua dela, gaizki idatzita badago. Berriz esan behar da: literatura hitzez egindako artea da.

Euskaraz ongi ez dakienak ez du sekula literatura ona egingo. Literatura ona egiteko, gogoeta sakonak eta euskara bikaina erabili behar baitira.

Mark Twain-ek F. Cooper-i egiten zion kritika ongi heldu da gure kasuan

“When a person has a poor ear for music he will flat and sharp right along without knowing it. He keeps near the tune, but it is *not* the tune. When a person has a poor ear for words, the result is a literary flattening and sharpening; you perceive what he is intending to say, but you also perceive that he doesn't say it”. Birdgman 108 or.

Pertsona batek musikarako belarririk ez badu, ohartu gabe motelegi edo garratzegi idatziko du. Doinura hurbilduko da, baina ez du egiazko doinua emango...; zer edo zer esan nahiko du baina ez du esango.

## **5. EUSKARAZ ONGI IDAZTEKO HIRU BALDINTZA**

EuskaraK, ona izan dadin, hiru osagarriok izan behar ditu: HUTSIK GABEA, ULERTERRAZA eta ABERATSA izatea

## 5.1. Hutsik gabe idatzi

Euskaraz ongi idaztea ez da erraza.

Diglosian bizi gara. Euskal Herrian ez da elebitasunik, diglosia gorria baino. Erdara nagusi agertzen da bizitzako alor gehienetan. Erdal giroan bizi gara eta erdara ohartu gabe buru muinetan sartzen zaigu

Euskaraz dakiten gazte askok ez dute euskaraz egiten, erdaraz hobeki eta errazago egiten dutelako.

Gizaldiz gizaldi irakaskintza erdaraz izan da. Euskara base-rkira zokoratua izan da.

Euskaraz zoragarri jakin arren, eskolan erdaraz ikasten zuten gure gurasoek.

Eta jakina, ez dugu euskal unibertsitaterik izan. Eta oraindik ere ez dugu.

Unibertsitatea, berriz, gizartearen radar eta aitzindari da. Gizarteko kultura alor askotan unibertsitateak urratutako ildotik doa.

Aspaldi-aspaldidanik euskara ez da mintzatu hiri handietan. Eta hiri handiek dira eskuarki hizkuntzaren norabidea markatzen dutenak.

Diglosia hau dela eta, batzuek erdaraz pentsatu baina euskaraz idazten dute

### 5.1.1. Euskara eskastu egin da baserrietan ere

Euskara txepeldu egin da, baserrietan ere bai. Aiton-amonek oraingo gazteek baino euskara aberatsago erabiltzen zuten.

Baserriko lan batzuk galdu egin dira: lihoa, garia, artoa... ez da egiten orain. Lan horien inguruan dozena eta dozenaka hitz, esamolde eta atsotitz erabiltzen ziren.

Euskaltzaindian ere badira batzuk erdaraz euskaraz baino hobeki dakitenak. Bertakoek aitortzen dute. Zer esango genu-

ke Real Academia Españolan edo Academie Francaisen gaztelaniaz edo frantsez baino alemanez hobeto balekitez?

Gure artean asko eta asko ez dira sekula euskal giroan bizi. Erdara erabat nagusi den eskualdetan jaio dira.

Mila eta mila urte dira euskaraz egiten dela. Eta tradizio bat badago. Askok ez dute tradizio hori bereganatu.

Euskal tradizioa ezagutu ez duenak askotan egingo dituzte erdararen kalko hutsak eta euskal egitura urratuko du.

Ez da lexikoaren kontua. Lexikoak ez dituzte hizkuntzak hondatzen. Egitura zuzena den bitartean, hizkuntzak bere berezkoan irauten du.

Halere, euskaldun berrien meritua handizki txalotu behar da. Maiz euskaraz ikasteko oztopo handiak izan dituzte. Guk alemanez ikasi genuen goizetik gaueraino alemanen artean bizirik. Euskaldun berriek askotan euskaraz ikasi behar izan dute erabateko erdal giroan.

Euskal Herrian ikusten dugun tragedia ez da herri askotan gertatzen. Euskaraz ongi dakiten askok ez dakite idazten. Eta idazten dakiten batzuk euskaraz ez dakite horren ongi.

Bi hilabetez euskaraz ikasi eta hirugarrenean ipuin lehiaketa irabazi egin zuen batek. Pentsa al liteke Ingalaterrara joan, bi hilabete eman ingelesez ikasten, ipuin bat idatzi eta aurreneko saria irabaztea?

## **5.2. Euskara ulerterraza idatzi**

Atzerrian bizi izan bazara, garbi ikusiko zenuen bertakoak erraz mintzatzen direla. Kanpotik etorritako batzuk iluntxo eta nekez.

Gauza bera gertatzen da euskararekin. Eguzkiz eguzki euskaraz egiten dutenek, baserritarrek eta laborariek, gauzak erraz, bikain, ulerterrazak esaten dituzte.

Euskaraz perpausa zailak irakurtzen ditugu. Batzuetan erdaren kalkoak direlako. Ia ulertezinak dira.

Badira batzuk esaldiak burutara etortzen zaizkien bezala, berehalaxe eta inongo orrazketarik gabe idazten dutenak.

Flaubert da puntu honetan maisu handia. Hara zer esaten zuen:

“Gauza bat mila modutara esan liteke. Baina mila modu horietarik bat da onena. Horixe bilatu behar da”.

Eta Flaubertek berak egun batzuetan ez zituen bizpahiru esaldi baizik idazten. Horrela burutu zuen Madam Bovary eleberri entzutetsua.

Hitzak eta perpausak harri mokorrak bezala dira. Eskultoreak harri mokorrak landu eta estatua sortzen du. Idazleak hizkuntza landu eta arte egin behar du.

Euskaraz zenbat eta hobeki jakin, euskara errazago egiten da. Aitzitik, euskaraz ongi ez dakienak maiz euskara zaila egingo du.

Kiroletan ere berdintsu izaten da. Zenbat eta hobeki jakin, errazago egiten dira.

“To write simply is as difficult as to be good” (Somerset Maugham). Sinpleki idaztea ongi idaztea bezain zaila da.

Honatx zer dioen Flauberti buruz Santillana testuak:

“Consiguió la perfección de su estilo a fuerza de corregir una y otra vez los detalles más pequeños, para dar a su prosa una sensación de estilo fácil.”

### **5.3. Euskara aberatsa erabili**

Zazpi probintzietan erabiltzen den euskara oso aberatsa eta guztirakoa da. Milaka eta milaka hitz, mila eta milaka esapide eta milaka atsotitz erabiltzen dira Euskal Herriko eskualdetan.

Euskalkiz mintzo direnak, euskara bikaina idazten dute eskuarki. Egiazko euskara euskalkietan dago. Euskalki guztietan.



Eta euskalkiez uste okerrak izan dira. Orain dela urte batzuk arte bizkaiera nahiko baztertua zegoen. Euskalki eskasa zela uste zuten batzuek.

Orain, euskalkiak ongi aztertuz gero, usteak erabat aldatu dira. Egiturari begira, bizkaiera oso betea dela ikusten dugu. Adibidez bizkaierak erakusleak (deiktikoak), erreflexiboak eta intentsiboak oso egoki moldatzen ditu, eta bereizketa zehatzak egiten ditu (V Bibliog. Gotzon Garate)

### *5.3.1. Euskaraz egunero ikasi*

Euskara ongi idazteko badugu nora jo.

Alde batetik euskaraz ongi dakitenekin mintzatu. Ahal izanez gero, baserritarrekin. Baserritaren euskaran bada musika, zalutasuna, joritasuna.

Idazleetan ere maisu asko ditugu. Hildakoen artean hor ditugu Axular, Toma Agirre, Txomin Agirre, Iñaki Alkain, F. Apalategi, Atano (Zapirain), Atxukarro, Jose Azpiroz, Jean Barbier, M. Elizegui, J.B. Etxeberry, Jon A. Irazusta, P Larzabal, J.A. Loidi, Orixe, S. Salaverria, P.M. Urruzuno, Zamarripa, M. Zarate eta beste asko.

Hiztegiek ere mesede handia egin ahal digute, batez ere *Orotariko euskal hiztegiak*.

Nahi izanez gero, hil arte euskaraz ikas genezake. Gure egunotan euskal idazlerik gehienek horrela egiten dute. Bada itxaropenik.

## **BIBLIOGRAFIA**

- BAKER, William D., *Focus on Prose*. Prentice-Hall, New York, 1969.

- BRIDGMAN, Richard, *The Colloquial Style in the Sixties*. An Anthology ed. by Carl R. Proffer. Ann Arbor, Michigan 1972.

- BRINK, André, *The novel. Language and Narrative. From Cervantes to Calvino*, New York, New York, University Press, 2000.
- CHAPMAN, Raymond, *Linguistics and Literature. An Introduction to Literary Stylistics*, London, E. Arnold, 1973.
- Ed. Tim Austin, *The Times Guide to English Style and Usage*. London: Times Books, 1999.
- *Essays in Stylistic Analysis*, edit. by Howard S. Babb. Harcourt Brace Jovanovich, Inc., New York 1972.
- FOWLER, Roger, *Linguistics and the Novel*, Methuen, London & New York, 1983.
- FREEMAN, Donald C. (ed.) *Linguistics and Literary Style*, New York, Holt, Rinehart and Winston, 1970.
- GARATE, GOTZON, *Bizkaiera*, KARMEL, 2004-3, 52-71 or.
- GRIFFIN, Jack: *How to say It Best*. Prentice Hall Press, 1994, New York.
- LEE, Charlotte: *Oral Interpretation*, Houghton Mifflin Company, Boston, 1980.
- *Linguistics and Style*, Enkvist, Nils Erik et bestek. Oxford Univ. Press, London, 1971.
- MARTIN, Jose Luis, *Critica estilística*, Madrid, Gredos, 1973.
- *Métodos de estudio de la obra literaria*, Taurus, Madrid 1989.
- MONTES, Hugo, *Ensayos estilísticos*, Madrid, Gredos 1976.
- Sklovski, Victor, *Sobre la prosa literaria. Reflexiones y analisis*. Planeta, Barcelona, 1975.
- *The Chicago Manual of Style* 15th Edition The University of Chicago Press, Chicago and London 2003.
- *The New York Times: Manual of Style and Usage*. Edit. By Allan M Siegel. New York Times Book, 1999.
- *The Oxford Guide to Style*. Edit. By Robert Ritter. New York-Oxford University Press, 2002.
- WATKINGS, Floyd C., *The Flesh and the Word. Eliot, Hemingway, Faulkner*. Vanderbilt University Press, Nashville, 1971.

*Gotzon Garate*